EMAKUMEEN IZENA DUTEN GELAK

1.1 LUZ CASANOVA (1873-1949)

Behartsuenen bizitza hobetzeko konpromisoa hartu zuen, eta eskolak, gizarte-jantokiak, eta egoitzak sortu zituen emakumeentzat eta bazterketa-egoerak bizi zituzten pertsonentzat. Horretarako, 1924an Jesusen Bihotzaren Apostolikoen Kongregazioa sortu zuen gizarte-aldaketaren bultzatzaile zen emakume-talde batekin batera.

1.2 LOREA AGIRRE (1968)

Kazetari euskalduna da, Argia, Euskaldunon Egunkaria, Berria eta Jakin argitalpenetan aritutakoa. Mondragon Unibertsitateko Sorguneak ikerketa-zentroko irakaslea da. Euskararekin, euskal kulturarekin eta feminismoarekin zerikusia duten hainbat liburu eta azterlan argitaratu ditu.

1.3 SIMONE DE BEAUVOIR (1908-1986)

Filosofo existentzialista, idazlea eta pertsona nabarmena 1968ko Maiatzean. Emakumearen Eskubideen Ligako buru izan zen, eta bertatik salatu zituen emakumeen aurkako bereizkeria, mespretxua, menpekotasuna eta inposizioak.

2.1 VIRGINIA WOOLF (1882-1941)

Emakumeenganako bidegabekeria intelektual, politiko eta sexualei buruzko lanak idatzi zituen, pentsatzea ere pentsaezina zen garaian. Horregatik, mugimendu feministaliberal sufragista ingelesaren inspirazioa eta eragina izan zen, eta erreferentzia izaten jarraitzen du egungo feminismoarentzat.

2.2 MALALA YOUSAFZAI (1997)

Nesken hezkuntzaren aldeko borrokaren nazioarteko sinboloa. Pakistanen, bere jaioterrian, tiro egin zioten emakumearen hezkuntzaren murrizketei aurre egiteagatik. Bakearen Nobel saria jaso zuen 2014. urtean, 17 urterekin, eta sari hori jaso duen pertsonarik gazteena izan zen.

2.3 ANGELA DAVIS (1944)

Filosofoa, aktibista afroamerikarra eta Black Panther Party erakundearen ikonoa da. Giza eskubideen eta arraza-bereizkeriaren aurkako borrokalari handitzat hartzen da. Davis arrazismoaren aurkako feminismoaren eta intersekzionaltasunaren adierazle nagusietako bat da. Ez du onartzen arrazismoaren aurkakoa eta antikapitalista ez den feminismoa.

2.4 ROSALÍA DE CASTRO (1837 - 1885)

Galiziako eta Espainiako literaturaren ikono nagusietako bat da. Emakumearen eskubideen defendatzaile aitzindaria izan zen, eta etengabe salatu zuen emakumeen menpekotasun egoera bere lanen bidez. Hauxe idatzi zuen garai hartan: "oraindik ez zaie uzten emakumeei sentitzen dutena eta dakitena idazten".

2.5 MARIE CURIE (1867-1934)

Frantziako Unibertsitatean Fisikako doktoretza lortu zuen lehen emakumea izan zen. Erradioaktibitatearen arloan aitzindaria izan zen, eta espezialitate desberdinetan bi Nobel sari jaso zituen lehen pertsona izan zen. Haren historia ez da ekarpen zientifikora mugatzen, Feminismoaren historiarentzat funtsezkoa den ondarera ere zabaltzen baita.

2.6 MARÍA MONTESSORI (1870-1952)

Pedagogia zientifikoaren aitzindaria da. Nazioartean ezaguna den Montessori metodoa sortu zuen, non haurrak hezkuntza-prozesuaren protagonista bihurtzen baititu. Kemenez defendatu zuen haurtzaroaren jabekuntza, gizateria bidezkoago, berdintasunezkoago eta libreago baterako gizarte-aldaketarako tresna gisa.

3.1 FRIDA KAHLO (1907-1954)

XX. mendeko margolari mexikar garrantzitsuena da, eta feminismo garaikidearen ikono handienetako bat da. Bere lanaren bidez identitate femeninoa bere begiradatik adierazten aitzindaria izan zen, generoko estereotipo normatiboak gainditzeko.

3.2 LOLI GARCÍA (1949-2017)

Bizkaiko boluntariotzaren erreferentea da, haur eta gazteen alorrean (Euskalerriko Eskautak) eta Hegoaldeko herriekiko elkartasunean (Elizbarrutiko Misioak). Bere kontzientzia feministaeta langile-klasekoa nabarmentzen dira, baita pertsona pobreenen aldeko hautu argia ere.

3.3 MAIALEN LUJANBIO (1976)

Bertsolari txalotua eta idazle gipuzkoarra da. Bertsolari Txapelketa irabazi duen lehen emakumea, 2009an; bertso lehiaketa garrantzitsuena da, Euskal Herri osoan lau urtean behin egiten dena. 2017an ere irabazi zuen txapelketa nagusia. Euskal artistentzako testuak egiten ditu eta euskarazko hedabideetan kolaboratzen du.